

BIZI HITZA

Urria 2025

«Jaunarengandik datorkit laguntza, zeru-lurak egin zituenagandik» (Sa/ 121, 2).

Nork ez du inoiz sentitu gehiago ezin duenik?

Horixe gertatzen zaio 121 salmoaren egileari, zirkunstantzia zailetatik pasatzen ari baita eta behar duen laguntza nondik etor dakioken galdetzen dio bere buruari.

Erantzuna Jainkoarengan duen fedearen baieztapena da, fidatzen denarengan. Norbera eta herri osoa zaindu eta babesten duen Jainkoaz hitz egiteko erabiltzen duen uste sendoak esperientzia pertsonal sakon batetik jaioa dirudien ziurtasuna adierazten du.

«Jaunarengandik datorkit laguntza, zeru-lurak egin zituenagandik».

Izan ere, salmoaren gainerakoa Jainko ahaltsu eta maitekor baten iragarpena da, existitzen den guztia sortu eta gau eta egun babesten duena. Jaunak «ez zaitu erortzen utziko, zure zaintzailea ez dago lo.» (Sa/ 121, 3), dio salmogileak, irakurtzen duena konbentzitzeko irrikaz.

Zailtasunetan murgildurik, egileak begiak altxatu ditu (ik. 1. ber.), bere baitatik eta bere inguru hurbilenetik at non heldu bilatu du eta erantzun bat aurkitu du.

Laguntza izaki bakoitza pentsatu eta bizia eman dion harengandik datorrela sentitu du, eta une oro eusten duena/diola?, inoiz utzi gabe (ik. 8. ber.).

Herri osoa gau eta egun zaintzen duen Jainko honengan sinesten du irmoki — «Israelen zaindaria» da (ik. 4. ber.) —, hainbestearino non ezin dion besteei jakinarazteari utzi.

«Jaunarengandik datorkit laguntza, zeru-lurak egin zituenagandik».

«Ziurgabetasun, estutasun eta zalantzazko/zalantza uneetan, Jainkoak bere maitasunean sinets dezagun eta Beregan uste ona izatea nahi du. [...] egoera zail hauetaz baliatzea nahi du, bere maitasunean sinesten dugula erakusteko. Horrek esan nahi du bera gure Aita dela eta gudan pentsatzen duela sinestea. Gure kezka guztiak harengana egotzi. Bere gain utzi»¹.

Baina nola iristen zaigu bakoitzari Jainkoarengandik datorren laguntza?

Liburu Santuak pasarte asko aipatzen ditu, non laguntza hori gizon eta emakumeen ekintzaren bidez gauzatzen den, – hala nola, Moises, Elias, Eliseo edo Estherren ekintzaz, Jainkoak herriagatik edo pertsona jakin batengatik duen arduraren tresna izateko.

Guk ere, «begirada altxatzen badugu», kontzienteki edo ez, gu laguntzera etortzen diren pertsonen ekintza errekonozituko dugu, eta eskerrak emango dizkiogu Jainkoari, harengandik baitator azken batean on guztia (Berak sortu du gutariko bakoitzaren bihotza), eta testigantza eman ahal izango diegu gainerakoei.

¹ C. LUBICH, CH konexioa, 1987-3-26: *Buscando las cosas de arriba*, Ciudad Nueva, Madril 1993, 31. or.

Jakina, zaila da horretaz konturatzea geure baitan itxita bagaude eta, une zailetan, gure indarrekin bakarrik aurrera nola atera pentsatzen badugu.

Aldiz, irekitzen garenean, ingurura begiratzen dugunean eta begiak altxatzen ditugunean, ohartzen gara gu ere Jainkoaren tresnak izan gaitezkeela, bere seme-alabez arduratzen dena. Besteen premiez ohartzen gara, eta laguntza ederra izan gaitezke beste batzuentzat.

«Jaunarengandik datorkit laguntza, zeru-lurrak egin zituenagandik».

Costa Ricako Rogerrek honela kontatzen du: "Ezagutzen nuen apaiz batek esan/jakinarazi zidan pertsona bat etorriko zitzaidala (ikustera), ni partaide naizen talde solidarioak eskaintzen dituen helduentzako pixoihalak jasotzera, bere parrokiako batek behar zituela jakinda. Haren zain nengoela oso egoera zailean zegoen auzokide bat ikusi nuen aurretik pasatzen, eta azken zazpi arrautzak eta jateko beste gauza batzuk eman nizkion. Harrituta geratu zen, ez baitzuen ezer jateko, ez berak, ez senarrak, ez seme-alabek. Jesusen gonbitea gogorarazi nion: «Eskatu eta emango zaizue» (*Mt* 7, 7), bera gure beharrei adi dagoela azpimarratuz. Pozik eta Jainkoari eskerrak emanez itzuli zen etxera.

Arratsaldean, apaizak bidalitako pertsona iritsi zen etxera. Kafe bat eskaini nion. Kamioilaria zen, eta zer garraiatzen zuen galdetu nion. «Arrautzak», esan zidan, eta 32 oparitu zizkidan».

Silvano Malini eta Bizi Hitzaren taldea